

**A**rgazki hauek lagun, inspirazioak sortutako hainbat ipuin.



## BESTE MUNDU BATEAN

Ander bere aitonarekin bizi zen. Oso mutiko serioa eta pobrea zen. Gauero-gauero istorio bat kontatzea gustatzen zitzaion. Horregatik bere aitonak istorio bat kontatzen zion lo hartzeko. Horietako bat hau zen:

*“Rodik amets bat zuen, pilotu izatea. Hegazkinak gustatzen zitzaizkion eta. Rodi herri pobre batean bizi zen, 7 urteko mutikoa zen. Oso pertsona alaia eta dibertigarria zen. Horregatik lagun asko zituen. Behin rodi benetako hegazkin batera igo zen. Aireratu. Gidaririk ez.*

*-Zer gertatu da? Esaten zuen. Bera bihurtu zen hegazkin baten gidari! Bere ametsa! Egia bihurtu zen. Hegazkinak oreka mantendu zuen bere familia zioan beste hegazkin baten aurka txokatu zen arte.*

*Rodi beste mundu batean zegoen. Dena zuria zen. Etxeak, borobilak eta zuriak. Jende guztia zuriz jantzita zegoen. Dena hegan zegoen grabitate gutxi zegoelako: Etxeak, lur zatiak... Eta denaren azpian ura. Rodi flipatuta gelditu zen; ezin zuen sinetsi beste mundu batean zegoela. Etxe batera sartu zen. Etxeak barrutik nolakoak ziren begiratu eta ohe batera sartu zen.”*

Momentu horretan Anderrek lo hartu zuen orduan, aitonak istorioa gelditu zuen. Ohera abiatu eta aitonak ere lo hartu zuen.

Hurrengo egunean, Anderrek istorioaren bukaera entzun nahi zuen; horregatik goiz esnatu zen eta gero, aitona esnatu zuen. Istorioarekin jarraitu zuen:

*“Rodik azkenean lo hartu zuen. Gaua pasa eta Mikel izeneko mutil jator bat hurbildu zitzaion. Oso azkar egin ziren lagunak. Rodik gertatutakoa kontatu zion. Bere etxean gelditzen utzi zion, mundu horretara joaten zena ezingo zuelako . Biak elkarrekin bizi izan ziren betirako etalagun hoberenak egin ziren. Gero ere beste lagun gehiago egin zituzten,”*

Aitonak istorioa bukatu zuen. Anderrek ikastolako materiala prestatu eta hurrengo istorioarengan pentsatzen joan zen eta bere ikaskide guztiei kontatu zien Rodiren istorioa.



## AMETS BAT HEGAZKINEAN

Martinek 6 urte ditu, Martin begi marroiak ditu eta ile beltza eta kizkurduna, bere ama eta bere txakurrarekin bizi da. Martin oso alaia eta dibertigarria da. Txikitatik hegazkinak gustatu zaizkio. Martinek hegazkinean montatu zen lehenengo aldian 2 urte zituela. Asko gustatu zitzaion eta hortik aurrera hegazkinak gustatu zitzaizkion.

Egun batean Martinek galdetu zion bere amari:

- Amatxo hurrengo astean montatu gaitezke hegazkin batean?
- Ez, Martin. Erantzun zuen ama.
- Baina zergatik ez?
- Martin, txikia zinenean kristo kolpea eman zenuen eta 4 hilabetez ospitalean egon zinen, eta ez duzu nahi berriro egon, ezta?
- Ez amatxo, baino lehen txikia nintzen.
- Hori egia da, baino aitatxo zer esan zizun hiltzerakoan?
- kasu egiteko zuri eta bihotzean eramateko.
- Ba hori Martin, orain joan zure logelara.

Martin bere logelara joan zen eta pentsatzen hasi zen. “ Handitan hegazkin bat egingo dut, nire hegazkina horrelakoa izango da: Tomatea bezain gorria lau hegalekin zerua bezain urdinak, motor bat hiperultra handia eta 50 eserleku masajearekin”.

Martin marrazten asi zen eta bere amaz pentsatzen. Bere amarengana joan eta esan zion:

- Amatxo, hiru egun falta dira nire urtebetetzerako.
- Bai Martin, eta sorpresa bat izango duzu.
- Hegazkin batean montatu !!! Bai, bai, bai !!!
- Ez Martin.

Martin triste triste logelara sartu zen eta bere amak ikusi gabe, hegazkin batera joan zen. Altxatzerakoan Martinen ama, Martinen logelara sartu zen zorionak emateko baina Martin ez zegoen. Poliziari deitu zion aurkitzeko. Martinen hegazkina despegatzen hasi zen eta hasi zen eta bat-batean, esnatu zen.

Hau ez zen benetako historia, Martinen ametsa izan zen, 36 urte zituela eta hegazkin batean zegoela. Horregatik ipuin hau AMETS BAT HEGAZKINEAN deitzen da.



## PENTSAMENDUAK AIREAN

1800.urtean, Flamen herrian Josu izeneko mutiko bat bizi zen. Berari hegan egiten zuen edozein gauza gustatzen zitzaion, eta abentura asko egiten zituen.

Beti arropa bera zeraman: gidariaren betaurrekoak, eskimaleko burukoa, lepoko urdina ... Josuk, lagun min bat zuen, Sky izenekoa, zikoina bat zena.

Josuren herrian, mezuak hegazkinez bidaltzen ziren. Gidaria Felix deitzen zen, biak lagun onak ziren.

Felix gidariko arroparekin zihoan beti, aldatzeko denborarik ez zuelako.

Felix aireratzera zihoala, Josu bere hegazkinean igo zen, Sky agurtuz. Felix aireratu, eta biak hagan joan ziren. Josu ahoa hortz bete gelditu zen, bere ametsak eginda zeuden. Felix konturatu zenean Josu hegazkinean zegoela kristorena montatu zion:

-Zer egiten duzu hemen?!- esan zion haserre, Felixek.

-Hegan egin nahi nuen.

-Baina, oso arriskutsua da.

-Berdin zait!- esan zion altuan Josuk.

-Bueltatuko gara oraintxe bertan.



Felix hegazkinari buelta eman zion, eta abiadura izugarrian herrialderantz joan ziren; baina, Josuri gerrikoa lotzea ahaztu zitzaion eta hegazkinetik erori egin zen.

Lurraren kontra jotzera zihoala, bat-batean, zerbaitek airean hartu zuen; Sky zen, orduan biak Flamera joan ziren.

**GOGORATU, BETI LAGUN BAT IZATEA ONA DA.**



## UMEAREN BIDAI GOGOTSUENA

Bat batean, 1989an Ursal ikastolan 3.mailako gelan, 16 ume zeuden.

Irakaslea Afrikako ume pobreetaz hitz egiten hasi zen.

Alex izeneko mutiko bat, beti pilotozko betaurrekoak eramaten ditu odola bezain gorria, eskimalezko txano bat, buf urdina eta bakero batzuk eramaten ditu. Oso alaia da eta beti abioi batekin dago. Eskua altxatu gabe esan zion irakasleari:

- Ni Afrikara joan nahi dut!!! eta amari esango diot.
- Alex, altxa eskua hitz egiteko. Zenbat aldiz esan behar duzute ? - esan zuen irakasleak.
- Bai, barkatu irakasle. -esan zuen Alexek.

10minutu egon ziren hitzegiten Afrikako ume pobreetaz eta txalaparta jo zuen.Orduan denak korrika joan ziren gurasoei kontatzera arratsaldeko saioa. Alex justu oinez jun bere ama lanean zegoelako eta Amona joan zelako bere bila.

Gaueko 9-etan ama iritsi zen eta Alex oso pozik jarri zen.Amona agurtu eta Alexek amari kontatu zion:

- Ama gaur arratsaldean Afrikako ume pobreetaz hitzegin dugu.
- Bai, eta zer nahi dezu?- galdetu zion amak
- Ba, oporretan Afrikara joan eta umeak ezagutu, lagundu eta....- erantzun zion Alexek
- Bueno, pentsatuko det- esan zuen amak.
- Bale!!- esan zuen Alex
- Orain ohera joan berandu dela.- esan zion amak Alexi.

Orduan Alex ohera joan zen eta pentsatu zuen:

Eh!!bihar nire urtebetetzea da.

Gaur Alex oso urduri dago, bere urtebetetzea delako.Larunbata da eta gainera astelehenean eta asteartean jai da ikastolan. Alex esnatu orduko, sukaldera joan zen. Hor ama zegoen eta esan zion:

Zorionak potxolo 8 urte!!!!,oso opari handia dakat.- esan zuen amak.

Alex oparia ireki eta sobrean jartzen zuen **AFRIKAKO BIDAIA**.Hori irakurri

orduko Alex oso pozik jarri zen eta amari irribarre bat atera zion.

Amak esan dio Alexi:

- Korri jantzi arropa abioia galtzen dugula.
- Bai! Eta gainera abioiez toma. - esan zuen Alexek.

Aireportura iristean Alex aluzinatu egin zuen abioi erraldoiekin.

Materiala errebisatzen ari zen neska, heldua zen, ile horia, begiak zerua bezain urdinak zituen, sudurra txikia eta aho fina. Alkandora txuri batekin zihoan eta gona beltz batekin.

Tita batean errebisatu zizkigun bi maletak eta ez zuen ezer arrarorik aurkitu.

Abioia hartzean Alex leihoko aldean jarri zen eta flipatzen ari zen. Ordu eta erdi egon ginen abioian.

Afrikara iritsi orduko hotelera joan ziren eta hor hiru ume probre zeuden. Alexek 15 euro eman zizkien bakoitzari, bokadilo bat erosteko eta zerbait edateko.

Astelehen arratsaldean Alex eta bere amak zerbait hitz egin zuten eta Afrikan bizitzea aukeratu zuten hango umeei laguntzeko.



## AMETSA LORTU DUT

Jakson bere aitonarekin bizi da, urrutiko baserri txiki batean. Arizaleta izeneko herrixkan.

Jaksoneri izugarri gustatzen zaizkio ipuinak, baina ez edozein ipuin, hegazkinen eta gizon ausarten ipuinak baizik. Gauero gauero eskatzen dio aitonari istoriorenbat kontatzeko, eta aitonak horrela egiten du. Orduan istorioa kontatzen hasi zen:

-Bazen behin mutil bat, Maikel izenekoa. Bere ametsa hegazkinen pilotoa izatea zen- Kontatzen zion aitonak.

-Ei... niri bezela orduan- erantzun zion Jaksonek.

-Bai hala da- istorioa kontatzen jarraitu zuen- Maikelek egunero egunero pilotoengan amesten zuen, eta esnatzen zenean bere ametsak bere aitari kontatzen zizkion, egunero egunero.

Aitak beti handitan piloto izaten lagunduko ziola esaten zion Maikeleri, eta Maikel oso oso pozik jartzen zen. Handia izateko irrikan zegoen eta, munduko piloto hoberena izan nahi zuen. Hori zen bere ametsa.-bukatu zuen aitonak.

-Aitona segi, istorioaren bukaera jakin nahi dut.-esan zuen Jaksonek.

-Ez. Berandu da eta ohera joan behar duzu, beste egun batean jarraituko dut.

-Ados, baina beste egun batean jarraitu kontatzen.- erantzun zion Jaksonek triste xamar.

Orduan lokartu egin zen, bere ohe suabe eta leunean.

Hurrengo goizean Jakson eskolara zihoala, mutil gazte batekin aurkitu zen. Niko izena zuela esan zion mutilak Jaksoni.

Niko 13 urteko gaztetxea da. Altua, argala eta ilea margaritak bezain horia dauka.

Bere janzkera musulman modukoa, soineko arraro bat, urdina eta motxila AC/DC -rena.

Mutil arraroa iruditzen zitzaion Jaksoni. Argi zegoen oso arrunta ez zela.

Orduan hitzegiten hasi ziren eta bapatean biek batera piloto izan nahi zutela esan zuten. Biak harrituak geratu ziren eta Niko bere bizitza kontatzen hasi zenean Jaksonek jakin zuen aitonak kontatutako istorioa zela. Jakson harituta geratuta, etxera bueltatu nahian zorabiatu eta lurrera



erori zen.

Niko oihuka hasi eta Jaksonen aitonari deitu zion. Aitona ziztu bizian etorri eta tripan indarra eginez berriz Jakson arnas hartzea lortu zuen.

Aitonak orduan dena goitik behera kontatu zion.

Niko bakarrik bizi zenez, gurasoak duela 2 urte hil zitzaizkion istripu batean. Horren ondorioz bakarrik geratu zen.

Aitonak Nikori afaltzera eskeeni zion eta denbora luzea pasa ondoren, handiak egin zirenean, Niko beraien etxera joan eta piloto izaten erakutsi zien.

Jakson zoriontsu zen.

Aladin eta ez dadin sar dadila Arizaletako plazan.



---

## BANGOKERAKO 502 HEGALALDIA

Bazen behin ume bat , Spark deitutakoa. Sparken ametsa hegazkiñez joatea zen. Bere familia ez zen aberatsa baina, 2001eko Irailaren 11ean Bangokera joan ziren dirua aurreztu zutelako.

Sparkek, azal zuria zeukan elurra bezalakoa. Beti gustatzen zitzaion, kamiseta ez eramatea bere hirian eta nabaritzen zitzaizkion bere hezurrak.

Kamiseta ez zeukanean bufanda urdin bat zeraman eta eskimalen txanoa. Hegazkin gidarien betaurreko handiak, begi osoak estaltzen zizkioten. Gainera, egun batzuetan ez zeraman ez zapatillik ez galtzerdirik; bakarrik bakero urdin batzuk. Orduan hegazkina zuten orduan igo ziren.

Hegazkina “American Airlines” eko boeing 767 bat zen. Beraiek, turista klaseko 1A, 1B eta 1C eserlekuak zituzten. Bidaia 10.000 m tara igotzen ari zen eta orduan bussines klaseko erotu batzuek altxatu ziren garrasika laban batzuekin esanez:

-Al-zaniya!- Adin dim mac America! (Arabieraz dago)

Argi dago Arabierak zirela eta norbait hilko zutela. Orduan Daniel Lubin hil zuten, labana lepoa mozten. Daniel Lubin hegazkin konpania baten presidentea zen. Spark, beldurrez, bere amaren eskua heldu zuen indarrekin. Sparkek hegazkin gidarien kabina begiratu zuen eta odol putzu pat ikusi zuen. Arabierak, hegazkinaren kontrola zeukaten . Bussines klaseko pertsonak turista klasera joan ziren.

Denak turista klasean zeudenean, plan batean pentsatzen ari ziren. Azafa ilehori batek esan zuen:

-Baditugu sardexkak, edalontziak, platerak...

-Gelditu!-moztu zion bidaiari batek-nik badakit karate egiten.

-Bale, ahal diegu atetik bota-esan zuen Sparkek.

Orduan azafata batek hartu zuen karroa esanez:

-Hauxe erabiliko dugu atea apurtzeko, gero karate egiten dutenak joko diete, indartsuenak aurrean jarriko dira edalontziak eta gauzak botatzen eta beste guztiak ere gauzak botatzen. Ados al zaudete?

-Ni ados nago -erantzun zuen Sparkek-eta zuek?

-Ongi da.-erantzun zuten guztiek.

Orduan, azafata horren plana egiten hasi ziren. Bi pertsona indartsu karroa eramaten zuten, atea ireki arte. Bidaiari batek bazekien hegazkina gidatzen eta sartu zen. Orduan, arabierak hegazkiña lurraren kontra bota zuten eta ez zen inor bizirik atera.

Arabieren intentzioa zen New Yrkeko “world trade center” botatzea. Nahiz eta beraiek ez bizi, lortu zuten New Yorken bizitza gehiago salbatzea. Beraien memorian dago ipuin hau.

